



1997ko ekainak 24, asteartea
118 Zenbakia

Martes 24 de junio de 1997
Número 118

LABURPENA — SUMARIO

	<i>Orrialdea</i>		<i>Página</i>	
3	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak	9.389	3 Disposiciones Generales del T.H. de Gipuzkoa.....	9.389
6	Elkarte Autonomoko Administrazioa.....	9.440	6 Administración de la Comunidad Autónoma.....	9.440
7	Udal Administrazioa.....	9.465	7 Administración Municipal.....	9.465
8	Justizia Administrazioa.....	9.474	8 Administración de Justicia.....	9.474

3

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

3

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*Ekainaren 10eko 45/1997 FORU DEKRETUA,
Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onar-
tzen duena.*

Uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, berarekin ekarri du Gipuzkoako zergen alorrean aurrerapauso handia ematea araugintza ahalmenaren garapenari dagokionez. Aurrerapauso horrek, hain zuzen, Konstituzioan eta Euskal Herriko Autonomi Estatutuan aitortutako foru lurraldeen eskubide historikoetatik eratorria den Ekonomia Itunaren erregimena indartu du.

Sozietateen gaineko Zergaren Arauari dagokionean, aipatu beharrekoa da, besteak beste, helburu integratzailea ere baduela: batetik, entitate juridikoen zerga araudi osoa hartzen du, salbu herri onurakotzat hartutako fundazio eta elkarten araudia, borondatezko gizarte aurreikuspenarako entitateena eta kooperatibena; eta, bestetik, lehenengo erregimenaren aldean oraingoak aldaketa nabarmena ekarri du berarekin.

Dena den, uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak jasotako erregelamenduzko garapena egin behar da. Foru Araua garatzea ezinbestekoa da entitate juridikoen zerga araudia erabat osatu ahal izateko.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

*DECRETO FORAL 45/1997, de 10 de junio, por el que
se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Socie-
dades.*

La Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, ha supuesto, en el ámbito tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, un gran paso en el desarrollo de las competencias normativas que posibilita el régimen de Concierto Económico resultante de los derechos históricos de los Territorios Forales, reconocidos en la Constitución y en el Estatuto de Autonomía del País Vasco.

En relación con la citada Norma Foral, es de resaltar, entre otras cuestiones, el propósito integrador que la misma persigue, al incluir en ella todo el régimen tributario de las entidades jurídicas, excepción hecha del régimen de las Fundaciones y Asociaciones declaradas de utilidad pública, del de las Entidades de Previsión Social Voluntaria y del de Cooperativas, así como el hecho de suponer una modificación de cierta importancia con respecto al régimen existente anteriormente.

No obstante, es preciso proceder a efectuar las previsiones de desarrollo reglamentario que en la Norma Foral 7/1996 se contienen, resultando éstas de trascendental importancia para un remate completo del régimen tributario de las entidades jurídicas.

Asmo horrekin, foru dekretu honek arautzen ditu 7/1996 Foru Arauan espresuki erregelamendu bidez garatu behar direla jasotzen dituen gaiak. Beraz, beste zerga figura batzuen araudian bezalaxe, erregelamendu honek bakar-bakarrik jasotzen ditu Foru Arauan geroago garatuak izateko alde zuzenak diren arauak. Horrelaxe gertatu da, batez ere, aipatu foru arauak jasotako xehetasun edo gai buruzko eskaera eta prozeduren alorrean. Bereziki aipatu beharrekoa da azken horietan Administrazioaren jarduketaren printzipio nagusiak sartu izana eta, zehazkiago, administrazio guztien prozedura administratiboa, hain zuzen ere azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasota dagoena.

Foru dekretu honen edukiari dagokionean, honelaxe osatuta dagoela adierazi behar da: hamahiru kapitulu, 56 artikulua, bi xedapen gehigarri, zortzi xedapen iragankor eta amaierako bi xedapen.

Foru Dekretuan egindako erregulazioan lehen zati bat bereiz daiteke: aurreneko zazpi kapituluak. Zergaren oinarri ezargarrari eta likidagarriari buruzko alderdi desberdinak jorratzen dira kapitulu horietan.

Hori horrela, I. kapituluaren garapen erregelak sartuta daude, ondare elementuen amortizazioek oinarri ezargarrira zehazteko orduan dakarten ondorioari buruz.

II. kapituluaren garapen erregelak sartuta daude, ondare elementuen aparteko konponketei eta aldi baterako ustiapen ekonomikoak lagatzea-egatik sortutako gastuei aurre egiteko dotazio planak, Sozietateen Zergaren Foru Arauak 13. artikulua 2. apartatuko d) letran jasotakoak, ebatzi ahal izateko prozedura.

III. kapituluaren berriz, Zergaren Foru Arauaren 16. artikulua 1. apartatuan egindako aurreikuspena garatzen da, eragiketa lotuen kasuan merkatuko ohiko balioaren arabera balorazioa egiteko prozedurari buruz.

IV. kapituluaren, bestetik, zenbait eskaera edo proposamen ebazteko prozedura bateratua jasotzen da, hala nola: pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketarik alde zuzenak baloratzeko proposamenak; ikerkuntza eta garapen jardueretarako entitate lotu batek egindako kontribuzio gastuen kenkaria egiteko proposamenak; entitate lotuen artean kudeaketarako laguntza zerbitzuen gastuen kenkaria egiteko proposamenak; eta Zergaren Foru Arauak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera subkapitalizazio koefiziente bat aplikatzeko proposamenak.

V. kapituluaren, ordea, Zergaren Foru Arauak 20. artikulua 2. apartatuan jasotako erregelamenduzko garapena jasotzen da, sortzapenaz bestelako sarrera eta gastuak denboran zehar egoteko irizpideen efikazia fiskalari buruz.

VI. kapituluaren, Zergaren Foru Arauak 22. artikulua 2. apartatuan berrinbertsioko plan bereziak onartzeko prozedurari buruz jasotako aurreikuspena garatzeaz gain, aparteko irabaziak oinarri ezargarrirako gerora sartzeko arau batzuk ematen dira.

Oinarri ezargarrira eta likidagarria zehazteko kapituluekin amaitzeko, VII. kapituluaren finkatzen da nola eskatu behar den oinarri ezargarrirako enpresa berrien kenkaria egiteko, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 26. artikuluan jasotakoaren arabera.

Argitu behar da Foru Dekretuko XIII. kapituluaren eskaera eta proposamenak tramitatu eta onartzeko prozedura orokor bat jasota dagoela. Hain zuzen, prozedura hori behin eta berriz aipatzen da Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak eta hori

Con tal fin, el presente Decreto Foral regula las materias que la Norma Foral 7/1996 señala expresamente que han de ser objeto de desarrollo reglamentario. Por lo tanto, al igual que en el régimen de otras figuras impositivas, el presente Reglamento únicamente contiene reglas sobre materias que previamente la Norma Foral ha habilitado para su desarrollo. Así sucede, sobre todo, en materia de solicitudes y procedimientos sobre aspectos o materias contenidas en la citada Norma Foral, debiendo destacar la inclusión en los mismos de los principios inspiradores de la actuación administrativa y, concretamente, del procedimiento administrativo común, recogidos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

Con respecto al contenido del presente Decreto Foral, señalar que se compone de trece capítulos, donde se desarrollan 56 artículos, dos disposiciones adicionales, ocho disposiciones transitorias y dos disposiciones finales.

Se puede distinguir una primera parte de la regulación del Decreto Foral, los primeros siete capítulos, donde se desarrollan cuestiones relativas o que afectan a la determinación de la base imponible y liquidable del Impuesto.

Así, el Capítulo I contiene reglas de desarrollo sobre el efecto que las amortizaciones de elementos patrimoniales tienen en la determinación de la base imponible.

El Capítulo II desarrolla el procedimiento para la resolución de los planes para la dotación destinada a la cobertura de reparaciones extraordinarias de elementos patrimoniales y gastos de abandono de explotaciones económicas de carácter temporal, previstos en la letra d) apartado 2 del artículo 13 de la Norma Foral del Impuesto.

El Capítulo III desarrolla la previsión del apartado 1 del artículo 16 de la Norma Foral del Impuesto sobre procedimiento para practicar la valoración por el valor normal de mercado en el caso de operaciones vinculadas.

El Capítulo IV aglutina en su seno un procedimiento uniforme para la resolución de diversas solicitudes o propuestas, como son las propuestas para la valoración previa de operaciones efectuadas entre personas o entidades vinculadas, para la deducción de gastos en concepto de contribuciones a actividades de investigación y desarrollo realizadas por una entidad vinculada, para la deducción de gastos en concepto de servicios de apoyo a la gestión prestados entre entidades vinculadas, y para la aplicación de un coeficiente de subcapitalización de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21 de la Norma Foral del Impuesto.

El Capítulo V contiene el desarrollo reglamentario previsto en el artículo 20, apartado 2, de la Norma Foral del Impuesto, relativo a la eficacia fiscal de criterios de imputación temporal de ingresos y gastos distintos al devengo.

El Capítulo VI, además de desarrollar la previsión contenida en el apartado 2 del artículo 22 de la Norma Foral del Impuesto, sobre el procedimiento para la aprobación de los planes especiales de reinversión, establece determinadas reglas para la integración diferida en la base imponible de beneficios extraordinarios.

Para terminar con los capítulos relativos a la determinación de la base imponible y liquidable, el Capítulo VII establece la forma de realizar la solicitud para practicar en la base imponible la reducción por empresas de nueva creación, recogida en el artículo 26 de la Norma Foral del Impuesto.

Hay que aclarar que el Decreto Foral recoge en su Capítulo XIII un procedimiento general para la tramitación y aprobación de solicitudes y propuestas, al que se remiten los capítulos que regulan procedimientos para la resolución de las distintas soli-

garatzen duen foru dekretu honek jasotako eskaera eta proposamenak ebazteko prozedurak arautzen duten kapituluetan. Horrek berarekin dakar XIII. kapituluaren jasotako prozedurara jo beharra Zergaren Foru Arauak eskaerak tramitatu eta ebazteko prozedura batera bidaltzen duenean, gai bakoitza arautu edo garatzen duen kapituluaren gai horri buruz ezarritako prozedurazko berezitasunak espezialitateak eragotzi gabe.

Foru dekretu honen edukia gehiago aztertuz gero esan behar da VIII. kapituluaren garatzen direla Zergaren Foru Arauaren jasotako kerkari batzuen aplikazioaren xehetasun batzuk.

IX.etik XII. kapitulura bitartean, Zergaren Foru Arauaren VIII. tituluan jasotako erregimen bereziei buruzko alderdiak garatzen dira. Zehazkiago, hemen garatutako erregimen bereziak hauei buruzkoak dira:

- Enpresa txikiak eta ertainak
- Zuzendaritza, koordinazio eta finantzaketa zentroak
- Enpresak sustatzeko sozietateak
- Gardentasun fiskala, sozietate taldeak eta
- Enpresen bategite eta bereizteak, aktiboen ekarpenak, baloreen trukeak eta aktibo eta pasibo osoaren lagapenak.

XIV. kapituluaren, berriz, Zergaren Foru Arauak 120.2 eta 129.5 artikuluetan jasotakoa garatzen da, entitateen aurkibideari eta ofiziozko itzulketari buruz.

Azkenik, XV. kapituluaren, Zergaren Foru Arauak 130. artikuluan jasotako erregulazioa garatuta dago, atxikitze eta kontura ordaintzeko betebeharrari buruz.

Bestalde, xedapen gehigarrietan jasota daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu behar duten jardura enpresarial edo profesionaletan etekina zehazteko arauak, zehazkiago honako hauek: ondare gehikuntzen kalkulua, aparteko irabazien berrinbertsioa nahiz diru sarrera eta gastuen egozpen tenporalak.

Xedapen iragankorrei buruz azpimarratu behar da horietako gehienetan epe batzuk jasota daudela Sozietateen Zergaren Foru Arauaren sartutako plan edo proposamenak eskatzeko, aipatu foru araua indarrean jarri denetik aurrera plan edo proposamen horiek aplikatu edo onartzeko eta, halaber, aipatu foru araua aplikagarria den ekitaldiarako.

Azkenik, amaierako xedapenean Erregelamendua noiz jarriko den indarrean finkatzen da. Gainera ere, xedapen horretan ezarritakoaren arabera, Erregelamenduan jasotako arauak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua aplikagarri duten zergaldietan aplikatuko dira, salbu atxikipenei eta konturako ordaintzeki buruzko gaitetan. Halaber, Ogasuneko eta Finantzaketako foru diputatuari ahalmen jakin batzuk ematen zaizkio Sozietateen gaineko Zergaren kudeaketari dagokionez.

Horiek horrela, Ogasuneko eta Finantzaketako foru diputatuaren proposamenez, Diputatu Kontseiluak 1997ko ekainaren 10eko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

citades y propuestas contenidas en la Norma Foral del Impuesto y desarrolladas en el presente Decreto Foral. Ello implica que con carácter general, allí donde la Norma Foral del Impuesto remita a un procedimiento para la tramitación y resolución de solicitudes, habrá de dirigirse al procedimiento establecido en el Capítulo XIII, sin perjuicio de las especialidades procedimentales que en la materia de que se trate establezca el capítulo que regule o desarrolle esta última.

Continuando con el análisis del contenido del presente Decreto Foral, el Capítulo VIII desarrolla cuestiones relativas a la aplicación de las diversas deducciones previstas en la Norma Foral del Impuesto.

Los Capítulos IX a XII desarrollan aspectos relativos a los regímenes especiales recogidos en el Título VIII de la Norma Foral del Impuesto. Concretamente, los regímenes especiales que son objeto de desarrollo son los referidos a:

- Pequeñas y medianas empresas,
- Centros de dirección, de coordinación y financieros,
- Sociedades de promoción de empresas,
- Transparencia fiscal, grupos de sociedades, y
- Fusiones, escisiones, aportaciones de activos, canje de valores y cesiones globales del activo y del pasivo.

El Capítulo XIV desarrolla las previsiones del artículo 120.2 y 129.5 de la Norma Foral del Impuesto, sobre índice de entidades y devolución de oficio.

Por último, el Capítulo XV desarrolla la regulación contenida en el artículo 130 de la Norma Foral del Impuesto sobre la obligación de retener e ingresar a cuenta.

Por su parte, las Disposiciones Adicionales contienen reglas sobre la determinación del rendimiento en las actividades empresariales o profesionales que tributen por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, referidas concretamente al cálculo de incrementos de patrimonio, a la reinversión de beneficios extraordinarios y a la imputación temporal de ingresos y gastos.

Con respecto a las Disposiciones Transitorias, hay que resaltar que en la mayoría de ellas se prevén plazos para solicitar los distintos planes o propuestas incluidas en la Norma Foral del Impuesto, para su aplicación o aprobación con efectos desde la entrada en vigor de la Norma Foral y para los ejercicios a los que sea de aplicación la misma.

Por último, la Disposición Final regula la entrada en vigor del Reglamento, estableciendo que los preceptos recogidos en la misma serán de aplicación para los períodos impositivos respecto de los que sea de aplicación la Norma Foral del Impuesto, con la salvedad prevista para la materia referente a las retenciones e ingresos a cuenta. Asimismo, recoge habilitaciones específicas a favor del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para aspectos relativos a la gestión del Impuesto.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados, en su reunión del día 10 de junio de 1997,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

AMORTIZAZIOAK

1. *artikulua. Ibilgetuaren ondare elementuak amortizazioa.*

1. Amortizazioa elementuz elementu egingo da.

Antzeko izaera duten edo erabilera gradu antzekoa duten elementuak direnean, amortizazioa elementuen multzo osoaren gainean egin daiteke, baldin eta beti ondare elementu bakoitzari dagokion amortizazio metatuaren zatia zein den jakin badaiteke.

Instalazio teknikoak amortizazio elementu bakarria izan daitezke.

Eraikuntzak direnean, berriz, lurzoruaren balioari dagokion erosketaren prezioaren zatia ezezaguna bada, aipatu zatia kalkulatzeko balio osoaren aldean balio hori zein proportziotan dagoen hartuko da kontuan, erosketaren urteko balio katastralak oinarritzat hartuta.

2. Ondare elementuak erabilgarritasun aldiaren barruan amortizatu beharko dira. Halakotzat hartuko da, amortizazio metodoaren arabera, elementuen balioa erabat ordainduta geratu behar den aldia, hondarrezko balioa kanpoan utzita.

Amortizazioa egiterakoan Zergaren Foru Arauak 11.2.a) artikuluan jasotako taulako koefizienteak erabiltzen direnean, erabilgarritasun aldia ez da handiagoa izango taula horretan finkatutako gehieneko amortizazioaldia baino.

3. Ibilgetu materialaren ondare elementuen berrikuntzak, zabalkuntzak edo hobekuntzak ibilgetu horretan sartzen direnean, horien zenbatekoa amortizatuko da ondare elementuen erabilgarritasun aldia osatzeko geratzen diren zergaldietan zehar. Horretarako, zergaldi bakoitzari ondorengo emaitza egotziko zaio: ondare elementuan zergaldi bakoitzean kontabilizatutako amortizazioa, depreziazio efektiboarekin bat datorren neurrian, berrikuntza, zabalkuntza edo hobekuntza eragiketak egin diren zergaldiaren hasieran ondare elementu horrek zeukan kontabilitate balioarekin zatituz lortutako portzentaia aipatu zenbatekoari aplikatuz ateratzen den emaitza.

Berrikuntza, zabalkuntza edo hobekuntza izan duten ondare elementuak, halaber, eragiketa horiek egin aurretik erabilitako metodoaren arabera amortizatzen jarraituko dira.

Aurreko parrafoan aipatutako eragiketak direla-eta aktiboaren erabilgarritasun aldia luzatzen denean, erabilgarritasun aldi berria kontuan hartu beharko da ondare elementuaren amortizazioa eta berrikuntza, zabalkuntza edo hobekuntzaren zenbatekoaren amortizazioa egiteko.

Kontabilitate birbalorazioak egiten direnean apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta horien zenbatekoa kontabilitate emaitzan sartzera derrigortzen duten lege edo erregelamenduen arabera egin badira.

4. Ondare elementu berberari ezingo zaizkio aplikatu aldi berean eta jarraian amortizazio metodo desberdinak.

5. Zergaren Foru Arauak 11.2.c) artikuluan jasotako amortizazio metodoa aukeratzen denean, arau hauek erabiliko dira:

a) Digitoen batura ondare elementua amortizatu den urteei emandako balio numerikoak batuz lortuko da.

DISPONGO:

CAPITULO I

AMORTIZACIONES

Artículo 1. Amortización de elementos patrimoniales del inmovilizado.

1. La amortización se practicará elemento por elemento.

Cuando se trate de elementos de naturaleza análoga o sometidos a un similar grado de utilización, la amortización podrá practicarse sobre el conjunto de ellos, siempre que en todo momento pueda conocerse la parte de la amortización acumulada correspondiente a cada elemento patrimonial.

Las instalaciones técnicas podrán constituir un único elemento susceptible de amortización.

Tratándose de edificaciones, cuando no se conozca la parte del precio de adquisición correspondiente al valor del suelo, se calculará ésta atendiendo a la proporción en que el mismo se encuentre en relación con el valor total, tomando como base los valores catastrales en el año de adquisición.

2. Los elementos patrimoniales deberán amortizarse dentro del período de su vida útil, entendiéndose por tal el período en que, según el método de amortización adoptado, debe quedar totalmente cubierto su valor, excluido el valor residual.

Cuando se practique la amortización aplicando los coeficientes establecidos en la tabla contenida en el artículo 11.2.a) de la Norma Foral del Impuesto, la vida útil no podrá exceder del período máximo de amortización fijado en la misma.

3. Cuando las renovaciones, ampliaciones o mejoras de los elementos patrimoniales del inmovilizado material se incorporen a dicho inmovilizado, el importe de las mismas se amortizará durante los períodos impositivos que resten para completar la vida útil de los referidos elementos patrimoniales. A tal efecto, se imputará a cada período impositivo el resultado de aplicar al importe referido el porcentaje resultante de dividir la amortización contabilizada del elemento patrimonial en cada período impositivo, en la medida en que se corresponda con la depreciación efectiva, entre el valor contable que dicho elemento patrimonial tenía al inicio del período impositivo en el que se realizaron las operaciones de renovación, ampliación o mejora.

Los elementos patrimoniales que hayan sido objeto de las operaciones de renovación, ampliación o mejora, continuarán amortizándose según el método que se venía aplicando con anterioridad a la realización de las mismas.

Cuando las operaciones mencionadas en el párrafo anterior determinen un alargamiento de la vida útil estimada del activo, esta nueva vida útil deberá tenerse en cuenta a los efectos de la amortización del elemento patrimonial y de la del importe de la renovación, ampliación o mejora.

Lo dispuesto en este apartado será de aplicación en el supuesto de revalorizaciones contables realizadas en virtud de normas legales o reglamentarias que obliguen a incluir su importe en el resultado contable.

4. Para un mismo elemento patrimonial no podrán aplicarse, ni simultánea ni sucesivamente, distintos métodos de amortización.

5. Cuando se adopte como método de amortización el previsto en el artículo 11.2.c) de la Norma Foral del Impuesto, se aplicarán las siguientes reglas:

a) Se obtendrá la suma de dígitos mediante la adición de los valores numéricos asignados a los años en que se haya de amortizar el elemento patrimonial.

Horretarako, ondare elementuaren amortizazioaldia den berdina den balio numerikoa emango da, urtetan adierazita, funtzionamenduan jarri eta urtebetera. Ondorengo urteetarako, ordea, elkarren segidan unitatez unitate murrizten doazen balio numerikoak emango dira, amortizazioaren azken urtera iritsi arte. Azken horrek unitatearen balio numerikoa izango du.

Amortizazioaldia gehieneko alditik, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 11.2.a) artikuluan jasotako amortizazio taularen arabera, amortizazioko gehieneko koefizienteari jarraiki ateratako aldira doazen aldietako edozein izan daiteke, biak barne.

b) Erosketa prezioa edo produkzio kostua aurreko letraren arabera lortutako baturarekin zatituko da. Eta horrela, digito bakoitzeko kuota kalkulatu da.

c) Digito bakoitzeko kuota zergaldiari dagokion balio numerikoarekin biderkatuko da.

6. Erregularizatze edo eguneratze xedapenetan jasotakoaren arabera eguneratu diren elementuen amortizazioari buruzko arauak, 1996ko urtarrilaren 1a baino lehen onartuak, elementu horien erabilgarritasun aldia amaitu bitartean aplikatzen jarraituko dira.

Modu berean jokatu da abenduaren 26ko 76/1980 Legearen babesean birbalorazitu diren ondare elementuekin.

7. Entitateak bategin, erabat edo zati batean bereizi eta kapital ekarpena egiten denean, lehendik zeukan amortizazio erregimena gorde beharko da ondare elementu bakoitzerarekin, salbu sujetu pasiboak horiekin amortizazio sistema propioa erabili nahi badu. Azken horretarako, amortizazio plana aurkeztu beharko du ondorengo 2. artikuluan jasotakoari jarraiki.

2. artikulua. Amortizazio planak.

1. Sujetu pasiboek amortizazio plan bat onar dezan eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari, foru dekretu honek 48. artikuluan jasotako prozedura orokorrean jasotakoaren arabera, artikulua honetan finkatutako berezitasunak kontuan hartuz.

2. Sujetuak datu hauek sartu beharko ditu eskaeran:

a) Amortizazioko plan berezian sartu nahi diren ondare elementuen azalpena. Zer jarduerari dauden lotuta eta non dauden kokatuta adieraziko da.

b) Sujetuak proposatutako amortizazio metodoa. Metodo horren arabera amortizazioak denboran zehar nola banatuko diren adieraziko da.

c) Sujetuak proposatutako amortizazio metodoaren justifikazioa.

d) Ondare elementuen erosketa prezioa edo produkzio kostua.

e) Ondare elementuak funtzionatzeko moduan jartzeko eguna.

Oraindik eraikitzen ari diren ondare elementuak badira, bere ustez funtzionatzeko moduan noiz jarriko den adieraziko da.

3. Eskaera ondare elementuen eraikuntzaldiaren barruan aurkeztuko da edo, bestela, funtzionatzeko moduan jarri ondorengo hiru hilabeteen barruan.

4. Sujetuak eskatuta, berari onartutako amortizazio planak aldatu ahal izango dira, aurreko apartatuetan jasotako arauak betez. Aldaketak ondorioa izango duen zergaldiaren lehen hiru hilabeteetan aurkeztu beharko da eskaera hori.

A estos efectos, se asignará un valor numérico igual al período de amortización, expresado en años, del elemento patrimonial de que se trate al año de puesta en condiciones de funcionamiento, y para los años siguientes, valores numéricos sucesivamente decrecientes en una unidad, hasta llegar al último considerado para la amortización, que tendrá un valor numérico igual a la unidad.

El período de amortización podrá ser cualquiera de los comprendidos entre el período máximo y el que se deduce del coeficiente de amortización máximo, según la tabla de amortización contenida en el artículo 11.2.a) de la Norma Foral del Impuesto, ambos inclusive.

b) Se dividirá el precio de adquisición o coste de producción entre la suma de dígitos obtenida según la letra anterior, determinándose así la cuota por dígito.

c) Se multiplicará la cuota por dígito por el valor numérico que corresponda al período impositivo.

6. Las normas relativas a la amortización de los elementos actualizados de acuerdo con lo previsto en las disposiciones de regularización o actualización, aprobadas con anterioridad al 1 de enero 1996, continuarán siendo aplicables hasta la extinción de la vida útil de los mismos.

La misma regla se aplicará respecto de los elementos patrimoniales revalorizados al amparo de la Ley 76/1980, de 26 de diciembre.

7. En los supuestos de fusión, escisión, total o parcial, y aportación, deberá proseguirse para cada elemento patrimonial adquirido el régimen de amortización a que estaba sujeto, excepto si el sujeto pasivo prefiere aplicar a los mismos su propio sistema de amortización, para lo cual deberá formular un plan de amortización, en los términos previstos en el artículo 2 siguiente.

Artículo 2. Planes de amortización.

1. Los sujetos pasivos podrán solicitar a la Administración Tributaria la aprobación de un plan de amortización de conformidad con lo dispuesto en el procedimiento general establecido en el artículo 48 de este Decreto Foral, con las especialidades previstas en este artículo.

2. La solicitud deberá contener los siguientes datos:

a) Descripción de los elementos patrimoniales objeto del plan especial de amortización, indicando la actividad a la que se hallen afectos y su ubicación.

b) Método de amortización que se propone, indicando la distribución temporal de las amortizaciones que se deriva del mismo.

c) Justificación del método de amortización propuesto.

d) Precio de adquisición o coste de producción de los elementos patrimoniales.

e) Fecha de puesta en condiciones de funcionamiento de los elementos patrimoniales.

En el caso de elementos patrimoniales en construcción, se indicará la fecha prevista de puesta en condiciones de funcionamiento.

3. La solicitud se presentará dentro del período de construcción de los elementos patrimoniales o dentro de los tres meses siguientes a su puesta en condiciones de funcionamiento.

4. Los planes de amortización aprobados podrán ser modificados a solicitud del sujeto pasivo, observándose las normas previstas en los apartados anteriores. Dicha solicitud deberá presentarse dentro de los tres primeros meses del período impositivo en el cual deba surtir efecto dicha modificación.

3. artikulua. Amortizazio askatasuna.

1. Amortizazio askatasuna aplikagarria zaien ondare elementuak funtzionamenduan jartzen diren egunetik aurrera eta horien erabilgarritasun aldi zehar gauzatu ahal izango da. Erabilgarritasun aldi moduan ulertuko da aurreko 1. artikuluan 2 apartatuan hala definitu dena.

2. Ibilgetuaren elementuen erosketa eguna edozein izanik ere, Zergaren Foru Arauak 11.4.a) artikuluan araututako amortizazio askatasuna gauzatu ahal izango da.

3. Zergaren Foru Arauak 11. artikuluan 4 apartatuko g) eta h) letretan aipatutako amortizazio askatasunaren aplikazioa foru dekretu honek 48. artikuluan jasotako prozedura orokorraren arabera eskatu beharko da, ondoko berezitasunak kontuan hartuz:

A) Sujetu pasiboak eskaera bat aurkeztuko dio Zerga Administrazioari, datu hauek sartuz:

a) Ondare elementuen azalpena, zein jarduerari dauden atxikita eta non dauden kokatuta.

b) Enpresaren jardueraren eragin kutsagarria murrizteari eta zuzentzeari atxiki izanaren justifikazioa, lehenago aipatutako g) letran jasota dauden elementuak direnean.

c) Euskal Autonomi Elkarteko organismoen ebazpena, lurzoru kutsatuak garbitzeko proiektu bat onartzuz. Lehenago aipatutako h) letran jasota dauden elementuak proiektuarekin zuzenean lotu izanaren justifikazioa.

d) Ondare elementuen erosketa prezioa edo produkzio kostua.

e) Ondare elementuak lehenago aipatutako g) eta h) letretan jasota dauden jarduerari atxiki zaizkien eguna.

B) Eskaera ondare elementuen eraikuntzaldiaren barruan aurkeztuko da edo, bestela, aipatu jarduerari atxiki ondorengo hiru hilabeteen barruan.

4. Zergaren Foru Arauak 45. artikuluan 2 apartatuko 1 zenbakian aipatutako amortizazio askatasuna aplikatzeko, foru dekretu honek 36. artikuluan jasotakoa beteko da.

II. KAPITULUA

APARTEKO KONPONKETEN PLANAK. ALDI BATERAKO USTIAPEN EKONOMIKOAK UZTEAREN GASTUAK

4. artikulua. Aparteko konponketen planak.

1. Sujetu pasiboek Zerga Administrazioari eskatu ahal izango diote Zergaren Foru Arauak 13. artikuluan 2 apartatuko d) letran jasotako ondare elementuen aparteko konponketei aurre egiteko dotazio plana onar dezan, foru dekretu honek 48. artikuluan jasotako prozedura orokorraren arabera, artikulua honetan zehaztutako berezitasunak kontuan hartuz.

2. Datu hauek sartu beharko dira eskaeran:

a) Aparteko konponketa izango duten ondare elementuen azalpena.

b) Planak eragindako ondare elementuen amortizazio sistemaren azalpena.

Artículo 3. Libertad de amortización.

1. La libertad de amortización se podrá practicar a partir de la fecha de entrada en funcionamiento de los elementos patrimoniales a los que resulte de aplicación y durante el período de vida útil de los mismos, entendiéndose por tal la definida en el apartado 2 del artículo 1 anterior.

2. La libertad de amortización regulada en el artículo 11.4.a) de la Norma Foral del Impuesto, podrá practicarse cualquiera que sea la fecha de adquisición de los elementos del inmovilizado.

3. La aplicación de la libertad de amortización a que se refieren las letras g) y h) del apartado 4 del artículo 11 de la Norma Foral del Impuesto deberá solicitarse de conformidad con el procedimiento general establecido en el artículo 48 de este Decreto Foral, con las siguientes especialidades:

A) El sujeto pasivo presentará ante la Administración Tributaria una solicitud que contendrá los siguientes datos:

a) Descripción de los elementos patrimoniales, actividad a la que se hallen afectos y su ubicación.

b) Justificación de su afectación a la reducción y corrección del impacto contaminante de la actividad de la empresa, cuando se trate de los elementos a que se refiere la letra g) citada anteriormente.

c) Resolución de los organismos oficiales del País Vasco aprobando un proyecto para la limpieza de suelos contaminados y justificación de la relación directa con el proyecto de los elementos a que se refiere la letra h) citada anteriormente.

d) Precio de adquisición o coste de producción de los elementos patrimoniales.

e) Fecha de afectación de los elementos patrimoniales a las actividades a que se refieren las letras g) y h) antes mencionadas.

B) La solicitud se presentará dentro del período de construcción de los elementos patrimoniales o dentro de los tres meses siguientes a su afectación a las actividades referidas.

4. Para la aplicación de la libertad de amortización a que se refiere el número 1.º del apartado 2 del artículo 45 de la Norma Foral del Impuesto se estará a lo dispuesto en el artículo 36 de este Decreto Foral.

CAPITULO II

PLANES DE REPARACIONES EXTRAORDINARIAS. GASTOS DE ABANDONO DE EXPLOTACIONES ECONOMICAS DE CARACTER TEMPORAL

Artículo 4. Planes de reparaciones extraordinarias.

1. Los sujetos pasivos podrán solicitar a la Administración Tributaria la aprobación de un plan de dotaciones para la cobertura de reparaciones extraordinarias de elementos patrimoniales a que se refiere la letra d) del apartado 2 del artículo 13 de la Norma Foral del Impuesto, de conformidad con el procedimiento general establecido en el artículo 48 de este Decreto Foral, con las especialidades detalladas en el presente artículo.

2. La solicitud deberá contener los siguientes datos:

a) Descripción de los elementos patrimoniales objeto de las reparaciones extraordinarias.

b) Descripción del sistema de amortización de los elementos patrimoniales afectados.

c) Aparte konponketen azalpen tekniko eta beharren justifikazioa.

d) Ondare elementuen erosketa prezioa edo produkzio kostua.

e) Konponketen gutxi gorabeherako zenbatekoa. Halaber, zein ekitalditan egin behar diren eta konponketaren justifikazioa zein den zehaztuko da.

f) Konponketen gutxi gorabeherako zenbatekoa denboran zehar egoteko irizpidea, eta horren justifikazioa.

g) Funtzionatzeko moduan jartzeko eguna.

3. Eskaera ondare elementuen eraikuntzaldiaren barruan aurkeztuko da edo, bestela, funtzionatzeko moduan jarri ondorengo hiru hilabeteen barruan.

4. Benetan egindako konponketen zenbatekoaren gainera soberan egin diren dotazioak, hala gertatuz gero, konponketak burutu diren zergaldian erregularizatu beharko dira. Halaber, berandutza interesak sortuko dira.

5. Administrazioak onartutako aparteko konponketen planak aldatu ahal izango dira sujetu pasiboak hala eskatuta, artikulu honetan jasotako arauak betez. Aldaketak ondorioa izango duen zergaldiaren lehen hiru hilabeteen barruan aurkeztu beharko da eskaera.

5. artikulua. Dotazio planak, aldi baterako ustiapen ekonomikoak uzteagatik sortutako gastuei aurre egiteko.

1. Sujetu pasiboek Zerga Administrazioari eskatu ahal izango diote Zergaren Foru Arauak 13. artikuluan 2 apartatuko d) letran jasotako aldi baterako ustiapen ekonomikoak uzteagatik sortutako gastuei aurre egiteko dotazio plana onar dezan, foru dekretu honek 48. artikuluan jasotako prozedura orokorraren arabera, artikulu honetan zehaztutako berezitasunak kontuan hartuz.

2. Datu hauek sartu beharko dira eskaeran:

a) Ustiapen ekonomikoaren aldi baterako izaeraren justifikazioa.

b) Ustiapenaren uztearen gastuen gutxi gorabeherako zenbatekoa, eta horren justifikazioa.

c) Uztearen gastuen gutxi gorabeherako zenbatekoa denboran zehar egoteko irizpidea, eta horren justifikazioa.

d) Ustiapen ekonomikoaren hasierako eguna.

3. Ustiapen ekonomiko hasi ondorengo hiru hilabeteen barruan aurkeztuko da eskaera.

4. Uztearen gastuen zenbatekoaren gainera soberan egindako dotazioak, hala gertatuz gero, ustiapen ekonomiko amaitu behar zen zergaldian erregularizatu beharko dira, dotazio planean jasotakoaren arabera. Halaber, berandutza interesak sortuko dira.

5. Ustiapen ekonomikoak uzteagatik sortutako gastuei aurre egiteko dotazio planak aldatu ahal izango dira sujetu pasiboak hala eskatuta, artikulu honetan jasotako arauak betez. Aldaketak ondorioa izango duen zergaldiaren lehen hiru hilabeteen barruan aurkeztu beharko da eskaera.

c) Descripción técnica y justificación de la necesidad de las reparaciones extraordinarias a realizar.

d) Precio de adquisición o coste de producción de los elementos patrimoniales.

e) Importe estimado de las reparaciones, especificando el ejercicio o ejercicios en que deban realizarse y justificación de las mismas.

f) Criterio de imputación temporal del importe estimado de las reparaciones y justificación del mismo.

g) Fecha de puesta en condiciones de funcionamiento.

3. La solicitud se presentará dentro del periodo de construcción de los elementos patrimoniales o dentro de los tres meses siguientes a su puesta en condiciones de funcionamiento.

4. El exceso de las dotaciones practicadas respecto del importe de las reparaciones efectuadas deberá regularizarse en el periodo impositivo en el que se realicen dichas reparaciones, devengándose los correspondientes intereses de demora.

5. Los planes de reparaciones extraordinarias aprobados podrán modificarse a solicitud del sujeto pasivo observándose las normas previstas en este artículo. Dicha solicitud habrá de presentarse dentro de los tres primeros meses del periodo impositivo en el cual deba surtir efecto la modificación.

Artículo 5. Planes de dotaciones para la cobertura de los gastos de abandono de explotaciones económicas de carácter temporal.

1. Los sujetos pasivos podrán solicitar a la Administración Tributaria la aprobación de un plan de dotaciones para la cobertura de los gastos de abandono de explotaciones económicas de carácter temporal a que se refiere la letra d) del apartado 2 del artículo 13 de la Norma Foral del Impuesto, de conformidad con el procedimiento general establecido en el artículo 48 de este Decreto Foral, con las especialidades detalladas en el presente artículo.

2. La solicitud deberá contener los siguientes datos:

a) Justificación del carácter temporal de la explotación económica.

b) Importe estimado de los gastos de abandono y justificación del mismo.

c) Criterio de imputación temporal del importe estimado de los gastos de abandono y justificación del mismo.

d) Fecha de inicio de la explotación económica.

3. La solicitud se presentará dentro de los tres meses siguientes a la fecha de inicio de la explotación económica.

4. El exceso de las dotaciones practicadas respecto del importe de los gastos de abandono efectuados deberá regularizarse en el periodo impositivo en el que la explotación económica hubo de concluir, de acuerdo con lo previsto en el plan, devengándose los correspondientes intereses de demora.

5. Los planes de dotaciones para la cobertura de los gastos de abandono de explotaciones económicas aprobados podrán modificarse a solicitud del sujeto pasivo, observándose las normas previstas en este artículo. Dicha solicitud habrá de presentarse dentro de los tres primeros meses del periodo impositivo en el cual deba surtir efecto la modificación.

III. KAPITULUA

ELKARRI LOTUTAKO ENTITATEEN ARTEKO ERAGIKETETAN MERKATUKO OHIKO BALIOAREN ARABERAKO BALORAZIOA EGITEKO PROZEDURA

6. artikulua. *Merkatuko ohiko balioaren araberako balorazioa egiteko prozedura.*

1. Zerga Administrazioak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 16. artikuluko 1 apartatuan jasotako ahalmena erabiltzen duenean, honelaxe jokatu da:

a) Lotuta dagoen beste alderdiari jakinaraziko zaio, salbu Sozietateen gaineko Zergari edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari atxikita ez dagoenean, balorazioa egiaztatzeko prozedura bat badagoela eta, hain zuzen, eragiketa lotuaren balorazioa alderdien artean hitzartutakoa ez den balioaz erator daitekeela horretatik.

Elkarri lotutako bi alderdiei jakinaraziko zaizkie balorazio hori bidezkoa izatearen arrazoiak eta merkatuko ohiko balioa finkatzeko kontuan har daitezkeen metodoak.

b) Elkarri lotutako alderdiek 30 eguneko epea izango dute, aurreko letran aipatutako jakinarazpenaren ondorengo egunetik aurrera, egoki deritzeten alegazioak egiteko.

c) Elkarri lotutako bi alderdien alegazioak aztertu ondoren, eta merkatuko ohiko balioa zehazteko egintza idatzi baino lehentxeago, elkarri lotutako bi alderdiei jakinaraziko zaizkie zehaztapen hori egiteko kontuan hartuko diren metodo eta irizpideak. Alderdi horiek 15 eguneko epea izango dute alegazioak egin eta egoki deritzeten agiri eta frogagiriak aurkezteko.

d) Merkatuko ohiko balioa zehazteko egintza arrazoitua izango da.

2. Merkatuko ohiko balioa zehazteko egintza errekurritu ahal izango dute elkarri lotutako bi alderdiek, eragiketa lotua egin zen zergaldiko likidazio egintzaren aurka errekurtsioak eta erreklamazioak aurkezterakoan.

3. Zerga Administrazioak finkatutako merkatuko ohiko balioak ondorioa izango du haiei dagokien zergaldietako likidazioetan, elkarri lotutako alderdietako inork errekurritzen ez duenean, Zergaren Foru Arauak 16. eta 18. artikuluetan jasotakoaren arabera.

4. Zerga Administrazioak finkatutako merkatuko ohiko balioa elkarri lotutako alderdietako batek errekurritu badu, haren efikazia, batari eta besteari dagokionean, etenda geratu da errekurtsioa izaera irmoz ebatzi artean.

Zerga Administrazioak finkatutako merkatuko ohiko balioa aplikagarria den zergaldietako likidazioek behin-behineko izaera izango dute errekurtsio hori irmo ebatzi artean.

5. Beste alderdi lotuak egindako eragiketen merkatuko ohiko balioaren araberako balorazioa egiteko eskumena beste zerga administrazio batena denean, prozedura hasi dela jakinaraziko zaio administrazio horri bidezkoa diren ondorioak izan ditzan.

CAPITULO III

PROCEDIMIENTO PARA APLICAR LA VALORACION POR EL VALOR NORMAL DE MERCADO EN OPERACIONES VINCULADAS

Artículo 6. Procedimiento para practicar la valoración por el valor normal de mercado.

1. Cuando la Administración Tributaria haga uso de la facultad establecida en el apartado 1 del artículo 16 de la Norma Foral del Impuesto, se procederá de la siguiente manera:

a) Se comunicará a la otra parte vinculada, excepto si no está sujeta al Impuesto sobre Sociedades o al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, la existencia de un procedimiento de comprobación del que puede derivarse la valoración de la operación vinculada por un valor diferente al pactado por las partes.

Se notificarán a ambas partes vinculadas los motivos por los que puede proceder dicha valoración y los métodos que podrán ser tomados en consideración para establecer el valor normal de mercado.

b) Las partes vinculadas dispondrán de un plazo de 30 días, contados a partir del día siguiente a la fecha de la notificación a que se refiere la letra anterior, para efectuar las alegaciones que estimen pertinentes.

c) Examinadas las alegaciones de ambas partes vinculadas, e inmediatamente antes de redactar el acto de determinación del valor normal de mercado, se pondrán de manifiesto a las referidas partes vinculadas los métodos y criterios que serán tenidos en cuenta para dicha determinación, quienes dispondrán de un plazo de 15 días para formular las alegaciones y presentar los documentos y justificantes que estimen pertinentes.

d) El acto de determinación del valor normal de mercado será motivado.

2. El acto de determinación del valor normal de mercado podrá ser recurrido por ambas partes vinculadas al ejercitar los recursos y reclamaciones que procedan contra el acto de liquidación correspondiente al período impositivo en el que se realizó la operación vinculada.

3. El valor normal de mercado establecido por la Administración Tributaria surtirá efecto, en cuanto no hubiere sido recurrido por ninguna de las partes vinculadas, en las liquidaciones de los períodos impositivos que correspondan, de acuerdo con lo previsto en los artículos 16 y 18 de la Norma Foral del Impuesto.

4. Si el valor normal de mercado establecido por la Administración Tributaria hubiere sido recurrido por alguna de las partes vinculadas, la eficacia del mismo, frente a una y otra, quedará suspendida hasta el momento en que el recurso hubiere sido resuelto con carácter firme.

Las liquidaciones correspondientes a los períodos impositivos en los que, en su caso, deba ser aplicable el valor normal de mercado establecido por la Administración Tributaria, tendrán el carácter de provisionales hasta el momento en que dicho recurso hubiere sido resuelto con carácter firme.

5. Cuando la competencia para practicar la valoración por el valor normal de mercado de las operaciones realizadas por la otra parte vinculada corresponda a otra Administración Tributaria, se comunicará a la misma la iniciación del procedimiento a los efectos que resulten oportunos.

IV. KAPITULUA

ELKARRI LOTUTAKO PERTSONA EDO ENTITATEEN ARTEKO ERAGIKETAK AURREZ BALORATZEKO PROPOSAMENAK, IKERKUNTZA ETA GARAPEN JARDUEREN GASTUAK, KUDEAKETAREN LAGUNTZA GASTUAK ETA SUBKAPITALIZAZIO KOEFIZIENTEA

7. artikulua. *Proposamen motak.*

Sozietateen gaineko Zergaren sujetu pasiboek eragiketak egin aurretik ondorengo proposamen hauek onar ditzan eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari:

- a) Elkarri lotutako pertsona edo entitateekin egindako eragiketak baloratzeko proposamenak.
- b) Gastuen kenkaria egiteko proposamena, entitate lotu batek egindako ikerkuntza eta garapen jardueri emandako kontribuzioen kontzeptuan.
- c) Gastuen kenkaria egiteko proposamena, elkarri lotutako entitateen artean ematen diren kudeaketarako laguntza zerbitzuen kontzeptupean.
- d) Zergaren Foru Arauak 21. artikulua 1 apartatuan jasotakoaz bestelako subkapitalizazio koefizientea erabiltzeko proposamena.

8. artikulua. *Proposamena onartzea eta atzera egitea.*

En los supuestos en los que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 121 de la Norma Foral del Impuesto, se hubiese acordado la baja provisional en el Índice de entidades y se hubiera procedido a extender la oportuna nota marginal en el Registro público correspondiente, el Director General de Hacienda acordará el alta en dicho Índice así como la cancelación de la nota marginal, previa petición de la entidad interesada, una vez que la misma se encuentre al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones Tributarias

Artículo 51. Obligación de colaboración.

La relación de entidades que, de acuerdo con el artículo 122 de la Norma Foral del Impuesto, deben remitir mensualmente al Departamento de Hacienda y Finanzas los titulares de los Registros públicos del Territorio Histórico de Gipuzkoa y los Notarios, se presentará en el lugar, forma y modelo que establezca el Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, quien podrá determinar las condiciones en que sea exigible su presentación por medio de soporte directamente legible por ordenador.

Artículo 52. Devolución de oficio.

Los sujetos pasivos a que se refiere el capítulo XV del título VIII de la Norma Foral del Impuesto deberán presentar declaración por el mismo para obtener la devolución prevista en el artículo 129 de dicha Norma Foral.

XV. KAPITULUA

ATXIKITZEKO ETA KONTURA ORDAINTZEKO
OBLIGAZIOA

53. artikulua. *Atxikitza edo kontura ordaintza behar-tzen duten errentak.*

1. Honako hauek dira hartzailearen Sozietateen gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa atxikipena egitera behartzen duten errentak:

a) Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako errentak, kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutakoak, eta abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 37. artikuluan aipatzen dituen gainontzekoak.

b) Finantza entitate batek bere titularitzapean duen kreditu bat osorik nahiz zati batean eskualdatu, lagatu edo transferitzeagatik hirugarren bati ordaindutako errentak.

c) Zor Publikoko balore eragiketetan kupoi korrituak duen prezioaren zati baliokidea. Balore eragiketa horiek abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, hamargarren xedapen gehigarrian aipatzen dituenak izango dira.

d) Otsailaren 1eko 3/1994 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren balore eragiketetan kupoi korrituak duen prezioaren zati baliokidea. Estatuko 1994ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 21eko 21/1993 Legeak esandakora eta abenduaren 29ko 22/1993 Legeak, Neurri Fiskalak, Funtzio Publikoaren Araubidearen erreforma eta Langabeziaren babesa gai harturik, ezarritakora egokitzen du aipatu foru dekretuak Gipuzkoako zerga araudia.

e) Kupoi korrituak duen prezioaren zati baliokidea lurralde espainiarrean egoiliar diren entitateek Zergaren Foru Arauaren eta abenduaren 27ko 43/1995 Legearen 9. artikuluan aipatzen diren entitateei Zor Publikoko baloreak, etekin esplizitua dutenak, eskualdatzen dizkietenean. Eskualdaketa kupoa bere epemugara iritsi aurreko lehen 30 egunen barruan eginga izan beharko du.

f) Joko, lehiaketa, zozketa edo konbinazio aleatorioetan parte hartzeagatik lortutako sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, sustapen edo salmentatik etorrira nahiz etorri gabe.

g) Beste sozietate batzuetan administratzaile edo kontseilari kargua izateagatik jasotako kontraprestazioak.

2. Kontratu berean zerbitzu prestazioak edo ondasun higiezinaren lagapenak jasotzeaz gainera, aldi berean Errenta Zergaren 13/1991 Foru Arauak 37. artikuluan 3. apartatuko a), b), c) eta d) letretan aipatzen dituen ondasun eta eskubideak lagatzea aurreikusten denean, atxikipena zenbateko osoaren gainean egingo da.

Kontratu berean hiri nahiz landalurreko finken errentamendu, azpierrementamendu edo lagapena jasotzen bada bestelako ondasun higigarriekin batera, ez da atxikipenik egingo errentan jarri edo lagatzen dena negoziokoak edo meatokiak direnean izan ezik.

3. Hartzailearen Sozietateen gaineko Zergaren konturako ordainketa honako hauek kontuan harturik egin beharko da:

a) Aurreko apartatuetako errentak, gauzen bidez ordainduak direnean.

b) Interesak, hauek likidatzeko maiztasuna hamabi hilabete-tik gorakoa denean.

CAPITULO XV

OBLIGACION DE RETENER E INGRESAR
A CUENTA

Artículo 53. *Rentas sujetas a retención o ingreso a cuenta.*

1. Deberá practicarse retención, en concepto de pago a cuenta del Impuesto sobre Sociedades correspondiente al perceptor, respecto de:

a) Las rentas derivadas de la participación en fondos propios de cualquier tipo de entidad, de la cesión a terceros de capitales propios y las restantes rentas comprendidas en el artículo 37 de la Norma Foral 13/1991, de 27 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

b) Las rentas satisfechas por una entidad financiera a un tercero, como consecuencia de la transmisión, cesión o transferencia, total o parcial, de un crédito titularidad de aquélla.

c) La parte del precio que equivalga al cupón corrido en las operaciones sobre valores de la Deuda Pública a las que se refiere la disposición adicional décima de la Norma Foral 13/1991, de 27 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

d) La parte del precio que equivalga al cupón corrido en las operaciones sobre valores a las que se refiere la disposición adicional segunda del Decreto Foral 3/1994, de 1 de febrero, por el que se adapta la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la Ley 21/1993, de 21 de diciembre de Presupuestos Generales del Estado para 1994 y a las medidas tributarias contenidas en la Ley 22/1993, de 29 de diciembre, de Medidas Fiscales, de Reforma del Régimen Jurídico de la Función Pública y de la Protección por Desempleo.

e) La parte del precio que equivalga al cupón corrido en las transmisiones de valores de la Deuda Pública con rendimiento explícito efectuadas dentro de los 30 días inmediatamente anteriores al vencimiento del cupón por entidades residentes en territorio español a las entidades a que se refiere el artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto y de la Ley 43/1995, de 27 de diciembre.

f) Los premios derivados de la participación en juegos, concursos, rifas o combinaciones aleatorias, estén o no vinculados a la oferta, promoción o venta de determinados bienes, productos o servicios.

g) Las contraprestaciones obtenidas como consecuencia de la atribución de cargos de administrador o consejero en otras sociedades.

2. Cuando un mismo contrato comprenda prestaciones de servicios o la cesión de bienes inmuebles, conjuntamente con la cesión de bienes y derechos de los incluidos en las letras a), b), c) y d) del apartado 3 del artículo 37 de la Norma Foral 13/1991, de 27 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, deberá practicarse la retención sobre el importe total.

Quando un mismo contrato comprenda el arriendo, subarriendo o cesión de fincas rústicas o urbanas, conjuntamente con otros bienes muebles, no se practicará la retención salvo que se trate del arrendamiento o cesión de negocios o de minas.

3. Deberá practicarse un ingreso a cuenta del Impuesto sobre Sociedades correspondiente al perceptor respecto de:

a) Las rentas de los apartados anteriores, cuando sean satisfechas o abonadas en especie.

b) Los intereses, cuando la frecuencia de la liquidación de los mismos sea superior a doce meses.

54. artikulua. *Salbuespenak atxikitzeo eta kontura ordaintzeo obligazioan.*

Honako hauek atxikitzeo edo kontura ordaintzeo obligazioetik kanpo gelditzen dira:

a) Espainiako Bankuak jaulkitako baloreen etekinak, baldin eta moneta merkatuan eskuhartzeo tresna erregulatzaile badira, Altxorreko Letren etekinak, eta Foru Aldundiak jaulkitako tituluen etekinak, honek espreski hala adierazten duenean.

Guztiarekin ere, kreditu entitateek eta gainerako finantza erakundeek Altxorreko Letren eragiketetan oinarrituta kontu finantzarioen kontratuak egiten dituztenean beren bezeroekin, derrigorrez egin beharko dute atxikipena kontu horien titularrek lortutako etekinen gainean.

b) Altxorraren alde eskubideak sortzen dituzten interesak, Estatuak kreditu ofizialean emandako maileguren kontraprestazio gisa.

c) Espainiako Bankuaren erregistro berezietan inskribaturik dauden kreditu entitateek eta establezimendu finantzarioek maileguak emateagatik jasotako interes eta komisioak, horien egoitza lurralde espainiarrean baldin badago.

Entitate publiko edo pribatuek, estatukoak nahiz atzerrikoak izan, jaulkitzen dituzten obligazio, bono edo bestelako tituluen interes eta etekinek, ordea, atxikipena jasan beharko dute aurreko parrafoan aipatu diren entitateen baloreen kartera integrazten dutenean.

d) Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duen finantza entitate batek establezimendu iraunkor baten bidez jasotako interes eta komisioak, baldin eta aurreko letran aipatu diren entitateen jarduerak garatzen baditu eta interes eta komisio horiek establezimendu iraunkorrak emandako maileguren ondorio direnean. Aurreko letraren bigarren parrafoan xedatutakoa salbuesten da hemen.

e) Partaidetza Industrialen Sozietate Estatalak kapitalaren partaidetza nagusia berea den sozietateekin egiten dituen mailegu, kreditu edo aurrerakin bidezko eragiketetan lortutako interesak. Salbuespen hau ez da aplikatuko zedula, obligazio, bono edo antzeko tituluen interesetan.

f) Egoiliarak ez diren kontuen etekinak, beti ere lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten entitateei ordaintzen bazaizkie, salbu eta ordainketa hori Espainian kokatuta dagoen establezimendu iraunkor bati egiten zaionean atzerriarekin transakzio ekonomikoak egiteko araudian aipatzen diren entitate erregistratuen bitartez.

g) Tributatzeko obligazio pertsonala duten entitateek, edo establezimendu iraunkor baten bidez obligazio erreala dutenek, beren ohiko jardueraren barruan egiten dituzten eragiketetan prezioa geroratzegatik jasotako kontraprestazioa.

h) Ezein establezimendu iraunkorraren bitartekaritza gabe aritzen diren sujetu pasiboei tributatzeko obligazio erreagatik ordaintzen zaizkien etekinak, baldin eta zerga ordaindu dela edo salbuespena bidezkoa dela egiaztatzen bada.

i) Baloreen Sozietateek, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 71. artikuluko i) letran aipatzen diren baloreak saldu edo erosteko emandako kredituekin lortzen dituzten interesak, eta, halaber, Baloreen Sozietate eta Agentziek martxoaren 22ko 276/1989 Errege Dekretuaren 21. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren mailegu eta gordailu eragiketekin lortutako interesak.

Artículo 54. *Excepciones a la obligación de retener y de ingresar a cuenta.*

No existirá obligación de retener ni de ingresar a cuenta respecto de:

a) Los rendimientos de los valores emitidos por el Banco de España que constituyan instrumento regulador de intervención en el mercado monetario, los rendimientos de las Letras del Tesoro y los rendimientos de otros títulos emitidos por la Diputación Foral, cuando ésta así lo declare expresamente.

No obstante, las entidades de crédito y demás instituciones financieras que formalicen con sus clientes contratos de cuentas financieras basadas en operaciones sobre Letras del Tesoro, estarán obligadas a retener respecto de los rendimientos obtenidos por los titulares de las citadas cuentas.

b) Los intereses que constituyan derecho a favor del Tesoro como contraprestación de los préstamos del Estado al crédito oficial.

c) Los intereses y comisiones de préstamos que constituyan ingreso de las entidades de crédito y establecimientos financieros de crédito inscritos en los registros especiales del Banco de España, residentes en territorio español.

No obstante, los intereses y rendimientos de las obligaciones, bonos u otros títulos emitidos por entidades públicas o privadas, nacionales o extranjeras, que integren la cartera de valores de las entidades a que se refiere el párrafo anterior, quedarán sometidos a retención.

d) Los intereses y comisiones que constituyan ingreso de un establecimiento permanente de una entidad financiera no residente en territorio español, que desarrolle las actividades propias de las entidades a que se refiere la letra anterior, cuando sean consecuencia de préstamos realizados por dicho establecimiento permanente, salvo lo dispuesto en el párrafo segundo de la letra anterior.

e) Los intereses de las operaciones de préstamo, crédito o anticipo, que realice la Sociedad Estatal de Participaciones Industriales con Sociedades en las que tenga participación mayoritaria en el capital, no pudiendo extender esta excepción a los intereses de cédulas, obligaciones, bonos u otros títulos análogos.

f) Los rendimientos de las cuentas de no residentes que se satisfagan a entidades no residentes en territorio español, salvo que el pago se realice a un establecimiento permanente situado en España, por entidades registradas a que se refiere la normativa de transacciones económicas con el exterior.

g) La contraprestación obtenida por el precio aplazado en las operaciones realizadas en el ejercicio de la actividad habitual de las entidades sujetas por obligación personal de contribuir o por obligación real de contribuir mediante establecimiento permanente.

h) Los rendimientos que se satisfagan o abonen a sujetos pasivos por obligación real de contribuir que actúen sin mediación de establecimiento permanente, cuando se acredite el pago del Impuesto o la procedencia de exención.

i) Los intereses percibidos por las Sociedades de Valores como consecuencia de los créditos otorgados en relación con operaciones de compra o venta de valores a que hace referencia la letra i) del artículo 71 de la Ley 24/1988, de 28 de julio, del Mercado de Valores, así como los intereses percibidos por las Sociedades y Agencias de Valores respecto de las operaciones activas de préstamos o depósitos mencionadas en el apartado 2 del artículo 21 del Real Decreto 276/1989, de 22 de marzo, sobre Sociedades y Agencias de Valores.

Ez da, orobat, atxikipena egiteko obligaziorik izango Balo-reen Sozietate eta Agentziek interesak lortzen dituztenean abenduaren 20ko 1814/1991 Errege Dekretuak, futuro eta aukeren merkatu ofizialak arautzekoak, III. eta IV. kapituluetan esandako eran futuro eta aukera finantzarioen merkatuetako partaide bezala operatzeko eraturako bermeen kontraprestazio gisa jasoak badira.

j) Inbertsio kolektiboko erakundek, abenduaren 26ko 46/1984 Legean arautu eta zerga tasa bereziaren arabera tributatzen dutenek, banatzen dituzten errentak, baldin eta hartzaileak Europako Batasuneko beste estatuetan egoiliar diren pertsonak badira.

k) Obligazioak akzio bihurtzeko primak.

l) Kapitala murrizteagatik edo akzio nahiz partaidetzak jaulkitzeko prima banatzeagatik sortutako etekinak.

m) Egoitza Espainian duen sozietate filial batek Europako Batasuneko beste estatu batean kokaturiko sozietate nagusiari banatzen dizkion mozkinak, baldin eta abenduaren 27ko 43/1995 Legeak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 46. artikulua 1. apartatuko f) letran ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

n) Egoitza Espainian duen sozietate nagusi batek Europako Batasuneko beste estatuetan kokatutako sozietateetatik jasotzen dituen mozkinak, foru dekretu honen 54. artikuluko 2. apartatuan aurreikusten den atxikipenari dagokionez, baldin eta abenduaren 27ko 43/1995 Legeak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 46. artikulua 1. apartatuko f) letran ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

o) Espainiako edo Europako interes ekonomikoko talde baten eta bere bazkideen artean exijigarri diren etekinak, eta halaber, aldi baterako elkarketa baten eta bere enpresa kideen artean exijitu daitezkeenak, salbu eta etekin horiek lurralde espainiarrean egoiliar ez diren pertsona edo entitateei bada- gozkie.

p) Partaidetza hipotekario, mailegu edo kreditu eskubideetatik lortutako etekinak, titulizazio fondoan sarrera eratzen dutenean.

q) Atzerriko kontuen etekinak, Espainian egoitza duten kreditu entitateek eta establezimendu finantzarioek establezimendu iraunkorren bidez atzerrian ordaindu dituztenean.

r) Espainiak nazioarte mailako itun bat sinatzeagatik zergatik salbuetsita dauden entitateei ordaindutako etekinak.

s) Sozietate taldeen erregimenean tributatzeko duen talde bateko sozietate partaideek elkarren artean banatutako dibidenduak edo mozkin partaidetzak, interesak eta bestelako etekinak.

t) Entitateak banatzen dituen dibidenduak eta mozkin partaidetzak, baldin eta horiek sortu diren zergaldietan entitate banatzaileak gardentasun fiskaleko erregimenean tributatu badu. Salbuespena ez da aplikatuko dibidendu eta mozkin partaidetzak lurralde espainiarrean egoiliar ez diren bazkideenak direnean.

Europako interes ekonomiko taldeen kasuan, lurralde espainiarrean egoiliar ez diren bazkideei banatzen zaizkien mozkinak ezingo dira atxiki tributatzeko obligazio errearen ondorioz zergapetuak izan badira.

u) Zergaren Foru Arauak eta abenduaren 27ko 43/1995 Legeak 9. artikuluan aipatzen dituzten entitate salbuetsiek lortutako errentak.

Tampoco existirá obligación de practicar retención en relación con los intereses percibidos por las Sociedades o Agencias de Valores, en contraprestación a las garantías constituidas para operar como miembros de los mercados de futuros y opciones financieras, en los términos a que hacen referencia los capítulos III y IV del Real Decreto 1.814/1991, de 20 de diciembre, por el que se regulan los mercados oficiales de futuros y opciones.

j) Las rentas distribuidas por las instituciones de inversión colectiva reguladas en la Ley 46/1984, de 26 de diciembre, de Instituciones de Inversión Colectiva, que tributen a tipo especial de gravamen, en cuanto sean percibidas por residentes en otros Estados miembros de la Unión Europea.

k) Las primas de conversión de obligaciones en acciones.

l) Los rendimientos derivados de la reducción del capital o de la distribución de la prima de emisión de acciones o participaciones.

m) Los beneficios distribuidos por una sociedad filial residente en España a su sociedad matriz residente en otro Estado miembro de la Unión Europea, cuando concurren los requisitos establecidos en la letra f) del apartado 1 del artículo 46 de la Ley 43/1995, de 27 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades.

n) Los beneficios percibidos por una sociedad matriz residente en España de sus sociedades filiales residentes en otros Estados miembros de la Unión Europea, en relación a la retención prevista en el apartado 2 del artículo 54 de este Decreto Foral, cuando concurren los requisitos establecidos en la letra f) del apartado 1 del artículo 46 de la Ley 43/1995, de 27 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades.

o) Los rendimientos que sean exigibles entre una agrupación de interés económico, española o europea, y sus socios, así como los que sean exigibles entre una unión temporal y sus empresas miembros, excepto si los rendimientos corresponden a personas o entidades no residentes en territorio español.

p) Los rendimientos de participaciones hipotecarias, préstamos u otros derechos de crédito, que constituyan ingreso de los fondos de titulización.

q) Los rendimientos de cuentas en el exterior satisfechos o abonados por establecimientos permanentes en el extranjero de entidades de crédito y establecimientos financieros residentes en España.

r) Los rendimientos satisfechos a entidades que gocen de exención por el Impuesto en virtud de lo dispuesto en un tratado internacional suscrito por España.

s) Los dividendos o participaciones en beneficios, intereses y demás rendimientos satisfechos entre sociedades que formen parte de un grupo que tribute en el régimen de los grupos de sociedades.

t) Los dividendos o participaciones en beneficios que procedan de períodos impositivos durante los cuales la entidad que los distribuye se hallase en régimen de transparencia fiscal, excepto si corresponden a socios no residentes en territorio español.

Tratándose de agrupaciones europeas de interés económico no procederá la retención respecto de los beneficios distribuidos a los socios no residentes en territorio español que hayan sido gravados por obligación real de contribuir.

u) Las rentas obtenidas por las entidades exentas a que se refieren los artículos 9 de la Norma Foral del Impuesto y de la Ley 43/1995, de 27 de diciembre.

Salbuetsitako entitate izaera Zuzenbidean onartzen diren bitartekoetako edozein erabiliz frogatu ahal izango da. Zerga Administrazioak bere esku izango du salbuetsitako entitate izaera nola eta zein modutan egiazta daitekeen ezartzea.

Zergaren Foru Arauak eta abenduaren 27ko 43/1995 Legeak 9. artikuluan aipatzen dituzten entitate salbuetsiek Zor Publikoko tituluekin lortzen dituzten etekinak zein prozeduraren bitartez geldituko diren atxikitzeke edo kontura ordaintzeko obligaziotik salbuetsita ezarri ahal izango da.

v) Zergaren Foru Arauak 33. artikularen 2. apartatuan aipatzen dituen dibidendu edo mozkin partaidetzak.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, entitate hartzaileak artikuluan honetan ezarritako baldintzak betetzen direla jakinarazi beharko dio atxikitzeke obligazioa duen entitateari. Komunikazio horretan, hartzailearen identifikazio datuak adierazteaz gainera, esandako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten frogagiriak erantsiko dira.

w) Aurreko artikularen 1. apartatuko c) letran aipatzen den kupoi korrituak duen prezioaren zati baliokidea, baldin eta baloreak eskualdatzen dituztenak Zor Publikoko Merkatua Oharpenen bidez kudeatzen duten entitateak baldin badira eta hauek ofizialki aitortua badute merkatu sortzaile direla. Beharrezkoa izango da, dena den, honako baldintza hauek aldi berean betetzea:

a') Entitate Kudeatzaileak bere kabuz egitea eskualdaketa. Goian adierazitako salbuespena ez da aplikatuko, bereziki, Entitate Kudeatzaileak egoiliarren kontuetan mantendu diren baloreak hartu eta egoiliar ez direnek Entitate Kudeatzaile berean edo beste batean duten kontu batera transpasatzen dituenean.

b') Eskualdaketa benetako zenbatekoa 100.000.000 pezetatik gorakoa izatea edo behar diren xedapenak aplikatuz zehaztuko den zifra gainditzea.

c') Salmenta guztiengatik merkatuko entitate sortzaileak goian adierazitako salbuespenean sartu nahi duen zenbateko metatua —Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauak hamargarren xedapen gehigarrian ezartzen duen 30 eguneko epean metatua hain zuzen— ez izatea balore horren kupoiaren azken ordainketa egin eta hurrengo 10 hilabeteetan entitate horrek ez egoiliarrekin egindako eragiketen hileko batez bestekoaren %20 baino handiagoa. Jaulkipen berriko baloreak direnean, esandako epea jaulkipen egunean hasi eta lehen kupoa ordaindu baino hirurogei egun lehenago amaituko da, eta seihileko kupoa duten baloreetan, berriz, lau hilabeteke izango da epe hori.

x) Sozietateen gaineko Zergaren sujetu pasiboek Zor Publikoko baloreekin lortutako etekinak, beti ere jarraian ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte, eta halaber, sujetu pasibo horiek baloreen segregaziotik datozen aktibo finantzarioak eskualdatuz edo deskontura amortizatuz jasotako etekinak:

a') Errenta finkoko baloreak izatea, kupoi esplizitua edukitzea, eta Estatuak, Autonomi Elkartek edo Foru Aldundiek Zor Publikoko Merkatuan Oharpenen bidez jaulkiak egotea.

b') Hiru urtetara edo hortik gorako epera jaulkitzea.

La condición de entidad exenta podrá acreditarse por cualquiera de los medios de prueba admitidos en Derecho. La Administración Tributaria podrá establecer los medios y forma para acreditar la condición de entidad exenta.

Se podrá determinar el procedimiento para poder hacer efectiva la exoneración de la obligación de retención o ingreso a cuenta en relación con los rendimientos derivados de los títulos de la Deuda Pública percibidos por las entidades exentas a que se refieren los artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto y de la Ley 43/1995, de 27 de diciembre.

v) Los dividendos o participaciones en beneficios a que se refiere el apartado 2 del artículo 33 de la Norma Foral del Impuesto.

A efectos de lo dispuesto en esta letra la entidad perceptora deberá comunicar a la entidad obligada a retener que concurren los requisitos establecidos en el citado artículo. La comunicación contendrá, además de los datos de identificación del receptor, los documentos que justifiquen el cumplimiento de los referidos requisitos.

w) La parte del precio que equivalga al cupón corrido a que se refiere la letra c) del apartado 1 del artículo anterior cuando los valores sean transmitidos por las Entidades Gestoras del Mercado de Deuda Pública en Anotaciones que tengan reconocida oficialmente la condición de creadoras de mercado cuando se den simultáneamente los siguientes requisitos:

a') Que se trate de una transmisión efectuada por la Entidad Gestora por cuenta propia. En particular, no será de aplicación la excepción arriba señalada a aquellas transacciones en las que la intervención de la Entidad Gestora consista en traspasar valores mantenidos en su cuenta de terceros por residentes a una cuenta de no residentes en esta u otra Entidad Gestora.

b') Que el importe efectivo de la transmisión en cuestión sea superior a 100.000.000 de pesetas o la cifra que, de conformidad con las disposiciones que resulten aplicables, se determine.

c') Que el importe acumulado, durante el plazo de 30 días establecido en la disposición adicional décima de la Norma Foral 13/1991, de 27 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del conjunto de las ventas que la Entidad creadora de mercado pretenda acoger a la excepción arriba señalada, no exceda en más del 20 por 100 del promedio mensual de operaciones con no residentes que la entidad hubiera efectuado durante los 10 meses siguientes al último pago del cupón de ese valor. El señalado plazo será el transcurrido desde la fecha de emisión hasta sesenta días antes del pago del primer cupón en el caso de valores de nueva emisión, y de cuatro meses en el caso de valores de cupón semestral.

x) Los rendimientos obtenidos por los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades de los valores de Deuda Pública que reúnan los requisitos que a continuación se establecen, así como los rendimientos obtenidos por tales sujetos pasivos como consecuencia de la transmisión o amortización de activos financieros al descuento procedentes de la segregación de dichos valores:

a') Que se trate de valores de renta fija con cupón explícito, emitidos por el Estado, las Comunidades Autónomas o las Diputaciones Forales en el Mercado de Deuda Pública en Anotaciones.

b') Que se emitan a un plazo igual o superior a tres años.

c') Balore horien tronkoa eta beren kupoiak zein bere aldetik negoziatzeko baimendura egotea. Baimena balore bakoitzagatik eman beharko da eta nork bere jaulkipen erreferentzia eramango du. Deskontuko aktibo finantzarioak negoziatzeko, posible izango da gutxieneko zenbateko unitario bat ezartzea edo bestelako zehaztapen teknikoak finkatzea etekinen gaineko kontrol tributarioa erraztu eta merkatuaren nondik-norakoak hobeto jarraitzeko.

Orobat, bitartekaritza eta informazio obligazioak ezarriko dira baloreak edo hauen bereizketatik datozen aktiboak bereiztu, eskualdatu, berreratu, itzuli edo amortizatzeari dagokionean.

Zor Publikoko Merkaturia Oharpenen bidez kudeatzen duten entitateek titularrak bakoitzari zein etekin egotzi behar zaion kalkulatu beharko dute, eta horren berri titularrari eta Zerga Administrazioari eman. Balore horien eragiketetan esku hartzen duten pertsonak zeintzuk diren ere jakinaraziko beharko diote Zerga Administrazioari.

y) Aurreko artikulua 1. apartatuko f) letran aipatzen diren sariak, baldin eta berauen zenbatekoa 100.000 pezetatik gorakoa ez bada dirutan ematen direnean, edo beren eskurapen balioak edo kostuak zenbateko hori gainditzen ez badu gauzatan emanez gero.

z) Aurreko artikulua 1. apartatuko e) letran aipatzen den kupoi korrituak duen prezioaren zati baliokidea, baloreak Espainiako Bankuari eskualdatu zaizkionean.

55. artikulua. Atxikitzea edo kontura ordaintzera behar-tuta dauden sujetuak.

1. Foru dekretu honen 53. artikuluan aipatu errentak ordaintzen badituzte, honako hauek egongo dira behartuta atxikitzea edo konturako ordainketa egitera:

a) Pertsona juridikoak eta gainontzeko entitateak, ondasun eta jabekideen komunitateak eta errenten esleipen erregimenean dauden entitateak ere barne.

b) Enpresari individualak eta profesionalak, beren enpresa edo lanbide jarduerengatik errentak ordaintzen dituztenean.

c) Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten pertsona fisiko eta juridikoak eta gainerako entitateak, bertan establez-mendu iraunkorren bidez operatzen dutenean.

2. Pertsona edo entitate bat ordainketa batean bitartekari lana egitera mugatzen denean, hau da, hirugarren baten kontura eta honen aginduz diru-kopuru bat ordaindu besterik egiten ez duenean, ezingo da esan hori errenta bat ordaintzea denik. Entitate gordailuzainen kasuan, ordea, bestetara uler daiteke baldin eta horiek lurralde espainiarrean egoiliar direnen atzerriko baloreak gordetzen badituzte edo balore horien kobrantzaz arduratzen badira. Errenta horiek Espainian atxikipenik izan ez dutenean egin beharko dute entitate gordailuzainek bidezko atxikipena.

3. Sariak direnean, hauek eman edo ordaintzen dituen pertsona edo entitateak egin beharko du atxikipena edo konturako ordainketa.

4. Etekin inplizitua duten aktibo finantzarioen eragiketetan honako hauek daude atxikipena egitera behartuta:

a) Etekinak aktibo finantzarioak eskualdatuz, amortizatuz edo berreskuratuz lortu badira, entitate jaulkitzailea edo eragiketaz arduratzen diren finantza erakundeak.

Jaulkiak izan eta gero aktibo finantzario bihurtu diren igorpen baliabideak direnean, atxikipena fedemaileak edo kobrantzara aurkezten dituen finantza erakundeak egin beharko du haiek epemugara iritsi edo eskualdatzen direnean.

c') Que se haya autorizado la negociación separada del principal y de los cupones de los citados valores. La autorización deberá referirse a cada valor específico, identificado por su correspondiente referencia de emisión, pudiendo establecer un importe unitario mínimo para la negociación de los activos financieros al descuento u otras especificaciones técnicas que faciliten el control tributario de los rendimientos o la adecuada supervisión del mercado.

Igualmente, se establecerán las obligaciones de intermediación e información correspondientes a las separaciones, transmisiones, reconstituciones, reembolsos o amortizaciones de estos valores o de los activos derivados de su separación.

Las entidades gestoras del Mercado de Deuda Pública en Anotaciones estarán obligadas a calcular el rendimiento imputable a cada titular e informar del mismo, tanto al titular como a la Administración Tributaria, a la que asimismo, proporcionarán la información correspondiente a las personas que intervengan en las operaciones sobre estos valores.

y) Los premios a que se refiere la letra f) del apartado 1 del artículo anterior cuando su cuantía no sea superior a 100.000 pesetas si se entregan en metálico o si su valor de adquisición o coste no supera tal importe, en el caso de ser en especie.

z) La parte del precio que equivalga al cupón corrido a que se refiere la letra e) del apartado 1 del artículo anterior cuando los valores hubiesen sido transmitidos al Banco de España.

Artículo 55. Sujetos obligados a retener o a efectuar un ingreso a cuenta.

1. Estarán obligados a retener o a ingresar a cuenta cuando satisfagan o abonen rentas de las previstas en el artículo 53 de este Decreto Foral:

a) Las personas jurídicas y demás entidades, incluidas las comunidades de bienes y de propietarios y las entidades en régimen de atribución de rentas.

b) Los empresarios individuales y los profesionales, cuando satisfagan o abonen rentas en el ejercicio de sus actividades empresariales o profesionales.

c) Las personas físicas, jurídicas y demás entidades no residentes en territorio español, que operen en él mediante establecimiento permanente.

2. No se considerará que una persona o entidad satisface o abona una renta cuando se limite a efectuar una simple mediación de pago, entendiéndose por tal el abono de una cantidad por cuenta y orden de un tercero, excepto que se trate de entidades depositarias de valores extranjeros propiedad de residentes en territorio español o que tengan a su cargo la gestión de cobro de las rentas de dichos valores. Las citadas entidades depositarias deberán practicar la retención correspondiente siempre que tales rentas no hayan soportado retención previa en España.

3. En el caso de premios, estará obligado a retener o a ingresar a cuenta la persona o entidad que los satisfaga.

4. En las operaciones sobre activos financieros con rendimiento implícito estarán obligados a retener:

a) En los rendimientos obtenidos en la transmisión, amortización o reembolso de los activos financieros, la entidad emisora o las instituciones financieras encargadas de la operación.

Quando se trate de instrumentos de giro convertidos después de su emisión en activos financieros, a su vencimiento o transmisión estará obligado a retener el fedatario o institución financiera que los presente al cobro.

b) Etekinak tituluetan jasotzen ez diren eskualdaketen bidez lortu badira, edo finantza erakunde baten esku jarritako eskualdaketen jaso badira, eskualdatzailearen izenean diharduen Banku, Aurrezki Kutxa edo entitatea izango da atxikipena egitera behartuta dagoena.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, etekin inplizituko aktibo finantzarioak saltzeko agindua eskualdatzailearengandik jasotzen duen Banku, Aurrezki Kutxa edo entitatea izango da eskualdatzailearen izenean diharduena.

c) Aurreko letretan aipatzen ez diren kasuetan, fedemaile publikoak esku hartzea nahitaezkoa izango da, honek egingo baitu dagokion atxikipena.

5. Eskualdatzen dena foru dekretu honen 53. artikuluan, 1. apartatuko c) eta e) letretan, aipatzen diren etekin esplizituko Zor Publikoko baloreak direnean, atxikipena eskualdaketa parte hartzen duen Zor Publikoko Merkatuaren Entitate Kudeatzaileak egin beharko du.

6. Eskualdatzen dena erregelamendu honen 53. artikuluan, 1. apartatuko d) letrean aipatzen diren baloreak direnean, atxikipena eskualdaketa bitartekari den entitate finantzarioak egingo du.

7. Atxikipena egitera behartuta dauden sujetuek hura ordaintzeko obligazioa ere hartuko dute beren gain, eta ez dira obligazio horretatik salbuetsita geldituko atxikitze obligazioa ez beteta ere.

Etekinaren entitate ordaintzailea Gipuzkoako Foru Aldundia denean, dagokion atxikipena eta ordainketa zuzenean egingo da.

56. artikulua. Etekin inplizituko aktibo finantzarioak eskualdatu, berreskuratu eta amortizatzeke betebeharrak fiskalak.

1. Atxikipena jasan behar duten etekin inplizituko titulu edo aktiboak inorenaganatu edo berreskuratu ahal izateko, ezinbestekoa izango da horiek aurrez eskuratu direla aurreko artikuluan aipatu diren fedemaile edo finantza erakundeen bitartez frogatzea eta eragiketaren prezioa egiaztatzea.

Edozein igorpen baliabide endosatu edo transmititzen den momentutik etekin inplizituko aktibo finantzariotzat hartuko da, merkataritza eragiketen bidez sortutakoak barne. Endosua edo lagapena hornitzaileen kredituak ordaintzeko egiten denean, ordea, ez da halakotzat hartuko.

Zirkulazioan jarri eta gero, igorpen baliabide aktibo finantzario bihurtzen denean, lehen endosu edo lagapena fedemaile edo erakunde finantzario baten bitartez egin beharko da, non eta endosuaren hartzailea edo eskuratzzailea finantza entitatea bera ez den. Fedemaileak edo finantza erakundeak ezin ezabatzeke moduan adierazi beharko dute dokumentuan aktibo finantzario bat dela, lehen eskuratzzaile edo edukitzailea zein den ere konstatatutako dutelarik.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, pertsona edo entitate jaulkitzaileak, honen izenean diharduen finantza erakundeak, eta eskuratzzailearen edo gordailugilearen izenean aritzen den fedemaile publiko edo finantza erakundeak ziurtagiri bat luzatu beharko dute eta bertan honako hau adierazi:

- a) Eragiketaren data eta aktiboaren identifikazioa.
- b) Eskuratzzailearen izena.
- c) Eskuratzzaile edo gordailugilearen identifikazio fiskal leko zenbakia.
- d) Eskurapenaren prezioa.

b) En los rendimientos obtenidos en transmisiones relativas a operaciones que no se documenten en títulos, así como en las transmisiones encargadas a una institución financiera, el Banco, Caja o entidad que actúe por cuenta del transmitente.

A efectos de lo dispuesto en esta letra, se entenderá que actúa por cuenta del transmitente el Banco, Caja o Entidad financiera que reciba de aquél la orden de venta de los activos financieros con rendimiento implícito.

c) En los casos no recogidos en las letras anteriores, será obligatoria la intervención de fedatario público, que practicará la correspondiente retención.

5. En las transmisiones de valores de la Deuda Pública con rendimiento explícito a que se refieren las letras c) y e) del apartado 1 del artículo 53 de este Decreto Foral, deberá practicar la retención la Entidad Gestora del mercado de Deuda Pública en Anotaciones que intervenga en la transmisión.

6. En las transmisiones de valores a que se refiere la letra d) del apartado 1 del artículo 53 de este Reglamento, deberá practicar la retención la entidad financiera que medie en la transmisión.

7. Los sujetos obligados a retener asumirán la obligación de efectuar el ingreso de la misma, sin que el incumplimiento de aquella obligación pueda excusarles de ésta.

La retención e ingreso correspondiente, cuando la entidad pagadora del rendimiento sea la Diputación Foral de Gipuzkoa, se efectuará de forma directa.

Artículo 56. Requisitos fiscales para la transmisión, reembolso y amortización de activos financieros con rendimiento implícito.

1. Para proceder a la enajenación u obtención del reembolso de los títulos o activos con rendimiento implícito que deban ser objeto de retención, habrá de acreditarse la previa adquisición de los mismos con intervención de los fedatarios o instituciones financieras mencionadas en el artículo anterior, así como el precio al que se realizó la operación.

Se estimará como activo financiero con rendimiento implícito cualquier instrumento de giro, incluso los originados en operaciones comerciales, a partir del momento en que se endose o transmita, salvo que el endoso o cesión se haga como pago de un crédito de proveedores o suministradores.

Cuando un instrumento de giro se convierta en activo financiero después de su puesta en circulación ya el primer endoso o cesión deberá hacerse a través de fedatario público o institución financiera, salvo que el mismo endosario o adquirente sea una institución financiera. El fedatario o la institución financiera consignarán de forma indeleble en el documento su carácter de activo financiero, con identificación de su primer adquirente o tenedor.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, la persona o entidad emisora, la institución financiera que actúe por cuenta de ésta, el fedatario público o la institución financiera que actúe o intervenga por cuenta del adquirente o depositante, según proceda, deberán extender certificación acreditativo de los siguientes extremos:

- a) Fecha de la operación e identificación del activo.
- b) Denominación del adquirente.
- c) Número de identificación fiscal del citado adquirente o depositante.
- d) Precio de adquisición.

Ziurtagiri horrek hiru ale izango ditu. Eskuratzailari bi emango zaizkio eta hirugarrena ziurtatzen duen pertsona edo entitatearen esku geldituko da.

3. Artikulu honetan esandakoari muzin eginez eskualdaitzaileak ez badu bere eskurapena justifikatzen, finantza erakundeek edo fedemaile publikoek uko egin beharko diote aktibo horien eskualdaketa parte hartzeari.

4. Etekin inplizituko aktibo finantzarioak jaulkitzen dituzten pertsona edo entitateek ezingo dituzte horiek itzuli edukitzailearen aldetik ez bada frogatzen, aurreko 2. apartatuan adierazitako frogak aurkeztuta, aurrez eskuratu dituela.

Aurreko parrafoan esandakoa betez tituluaren edo aktiboaren edukitzaileari itzulketarik egin behar ez dion jaulkitzaileak edo finantza erakundeak zenbateko horren pareko gordailua eratu beharko du agintari judizialen esku jartzeko.

Aktiboak berrerosi, erreskatatu, kantzelatu edo aurrez amortizatu ahal izateko, finantza erakundeek edo fedemaile publikoek esku hartzea ezinbestekoa izango da. Titulua berriro jartzen bada zirkulazioan, aktiboa jaulki duen pertsona edo entitatea eskuratzaila soil modura agertuko da.

5. Eskurapena egiaztatzen duen ziurtagiria galtzen bada, tituluaren edukitzaileak horren ale bikoiztua eskatu ahal izango dio ziurtagiria luzatu duen pertsona edo entitateari.

Pertsona edo entitate horrek dokumentua ale bikoiztua dela konstarazi beharko du, zein egunetan ematen den ere adierazteaz gainera.

6. Eskualdaketa dohainik egiten denean, eskuratzaila eskualdatzailearen eskurapen balioari subrogatuta gelditzen dela ulertuko da, kostu hori justifikatzeko nahiko frogarik baldin badago beti ere.

7. Kapital propioak hirugarrenei lagatzearen balore adierazgarrietatik eratorzen diren etekinek etekin esplizituen erregimena izango dute horiek produzitzen duten urteko efektiboa jaulkipenaren ekitaldian finkatzen den interes tasa aplikatetik edo, horren ezean, data horretan diruak duen legezko interes tasa aplikatetik aterako litzatekenaren berdina edo handiagoa denean. Hori guztia, nahiz eta, inplizituki, jaulkipen, amortizazio edo berreskuratze baldintzetan beste etekin gehigarri bat finkatuta egon osorik edo zati batean.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eta etekin aldakorreko aktibo finantzarioen jaulkipenei dagokienez, eragiketaren interes efektibo bezala bere barruko etekin tasa hartuko da, etekin esplizituak bakarrik kontuan izanik. Behar izanez gero, tasa hori sortutako etekinen behin-betiko zenbatekorako aldian-aldiri finkatzen den parametroaren hasierako balorazioa erreferentzia hartuta kalkulatu da.

57. artikulua. Atxikitze eta kontura ordaintzeko obligazioa kalkulatzeko oinarria.

1. Exijitzen edo ordaintzen den kontraprestazio osoa izango da, izaera orokorrez, atxikitze obligazioa kalkulatzeko oinarria.

2. Etekin inplizituko aktibo finantzarioak amortizatu, berreskuratze edo eskualdatzen direnean, atxikitze obligazioa kalkulatzeko oinarria hauxe izango da: aktibo horien amortizazio, berreskuratze edo eskualdatze balioaren eta beren eskurapen edo harpidetza balioaren arteko diferentzia positiboa. Zentzu horretan, eragiketak dakartzan gastuak ez dira gutxituko.

De la mencionada certificación, que se extenderá por triplicado, se entregarán dos ejemplares al adquirente, quedando otro en poder de la persona o entidad que certifica.

3. Las instituciones financieras o los fedatarios públicos se abstendrán de mediar o intervenir en la transmisión de estos activos cuando el transmitente no justifique su adquisición de acuerdo a lo dispuesto en este artículo.

